

BIZIKIDETA UDAL ARAUAREN ALDAKUNTZARI BURUZKO INFORMAZINOA:	
KONPONDU NAHI DIRAN ARAZOAK	Eraikin edo gune itxietara baimenik gabe sartzea, piroteknia-artikuluen erabilera desegokia eta salmenta ibiltaria, eta baimenik gabe suak piztea zigortzeko arau-hauste administratibo berriak gehitzen dira. Horrez gain arau hauste guztien zigorrak eguneratzen dira.
EGOKITASUNA	Neurri hauek beharrezkoak dira herritarren segurtasuna, bizikidetza eta ondasun publiko zein pribatuen babesa bermatzeko
HELBURUA	Xedea da portaera arriskutsuak eta bizikidetza nahasten duten jokabideak prebenitzea eta zigortzea, herritarren ongizatea eta segurtasuna indartuz.
BESTE AUKERA ERREGULATZAILEAK	Ez dira aurreikusten.

